

Noaia !!



Argazki eta bideo lehiaketa
antolatu du Andatzak

Nicola Foroni, partehartze prozesuetan aditua

“Atez atekoa ohikoa da
Europako herri askotan”



mantangorri_{rekin}



6 DVD
euskaraz

Zinema
etxean 3

azaroaren **15**etik aurrera
larunbat eta asteazkenetan
DVD bat

1. Heidi 2. Heidi hirian
2. Pippi galtzaluz
3. Asterix Britainian
4. Azti ikaslea
5. Txoritxoak
6. Zientzia fikzioa



+ 4,90 €

Babesleak:



Albistea iruditan !!

Erle Egun mundiala

Urtez urte, sendotzen doan eguna da Urleari eskainitakoa. Euskal Herriko ezti egileen artean, gero eta izen handiagoa du Usurbilgo Erle Egunak. Lore bakarreko lehiaketan, Beñat Elorza (Segura) izan zen lehen saria eskuratu zuena. Javier Galarragarentzat izan zen bigarren saria. Lore anitzekoan, Jose Miguel Aizeaga (Hernani) nagusitu zen. Anastasio Mujika (Legazpi) bigarren izan zen. Gozogintza lehiaketan, aldiz, Arantxa Manterolaren postrea izan zen lehen saria eraman zuena eta Joseba Pellejeroentzat izan zen bigarrena.

Arrakasta handiena, Porrotx paila-zoak izan zuen. Eztia yogurrearekin banatuz, haur eta handi asko goxatu zituen. Epaimahaikideen artean, Martin Berasategi eta Pedro Subijana izan ziren.



DONOSTIAKO XARMA JATETXEAK ERAMAN ZITUEN BI EZTI POTOAK, ENKANTEAN 2.400 EURO ESKAINITA.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaerri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com
Aldizkariako koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com
Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com
Publizitatea: Bea Alda, publicitate@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbietta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainaro Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Olatz Rezola, Amaia Zumeta.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

LURRALDE BUS TXARTELA	6. OR.
ATEZ ATEKOA, ZALANTZA OHIKOENAK	10. OR.
NOAUA!REN KULTURALDIA	12. OR.
JENDETZA BEHOBIAN	15. OR.




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Papera jartzea eta Pinturak orokorrean

FERNANDO PINTURAK

943 366 019
943 363 460

Kale Nagusia 1 · USURBIL

Industri eta iragarki

SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA

PSU

943 371 954

UGALDEA POL.36.2·USURBIL

LATAILLADE

ITURGINTZA

GASA BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Ariztitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021



MAIALEN UNANUE

Leioako labirintua 2008

Duela hiru bat urte egon nintzen lehen aldiz Euskal Herriko Unibertsitateak Leioan duen kanpusean. Urduri joan nintzen, buruari hura nolakoa ote zen galdetuz. Donostiako kanpusa nuen nik buruan, polita baita, bere belardi eta guzti.

Kostata, baina iritsi ginen Leioara. Mendi alderantz igo eta gune industrial bat antzeman genuen, baina sarreran "EHU, Bizkaiko Kanpusa" jartzen zenez, barrura sartu ginen:

- Hemen zementua, hor zementu gehiago eta han... Bai, zementu gehiago.

- Mitxelingo plataforma zirudien horrek.

Behin kurtsoari martxa hartuta, xarma berezi bat bilatu genion kanpusari. Bigarren urtearekin batera obrak hasi ziren. Fakultate batzuk (kafetegi, dekanotza, idazkaritza, eta abarrez gain) parking baten gainean eraikitako plataforma batean daude, aldi berean hiru zatitan banatuta dagoena. Etorkizuneko unibertsitate baten irudia lortze aldera edo, lehen eta biga-

rren plataformak elkartzen dituzten zubiak berriro nahi izan zituzten, eta baita egin ere; itzuli ederrak egin behar izaten genituen fotokopia ziztrin batzuk ateratzeko!

Aurten kanpusera itzuli garenean, berri txar batekin egin dugu topo: kafetegi handia itxi digute. Horrek zera esan nahi du, ikasle guztiak kanpus osoan dagoen kafetegi bakarrera joan beharko dugula, txikira alegia. Aldaketa (edo buruhauste) gehiago ere badaude, ordea. Besteak beste, halako labirintu bat eraiki dute kafetegi ohia, idazkaritza eta aularioa barne hartzen dituen. Dibertigarria eman dezakeen arren, ez du grazia handirik egiten halako bueltak ematen ibili behar izateak, batez ere, hotza eta euria egiten duenean.

Gure fakultatea plataforma horren gainean dago, eta egiten ari diren zulo eta bestelako obrek beldur pixka bat ematen dute: klasera sartu eta noizbehinka dardar txikiak sumatzen dira. Egunen batean unibertsitatea gainera eroriko ez ote zaigun...

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregerai

Ika-mika !!

Euren krisia, euren kontura

Azken hilabeteotan mundu guztia dabil krisia gora, krisia behera: komunikabideak, enpresariak, gobernu eta sasi-gobernuak... langileok oso aspalditik gaude krisi larrian, baina horrek, antza, ez du batere ardurarik. Orain denon lehentasuna enpresen itzelezko irabaziak salbatzea izan behar omen da.

Nondik dator eurek sortutako krisi egoera hau, baina?

-Finantza krisia: espekulazioak, iruzurrak eta arau faltak eragindakoa.

-Petrolioaren, elikagaien eta lehengaien prezioen egoera ikusgarria.

-Etxebizitza negozioaren krisia: neurri gabeko prezioen eta gehiegizko zorren eruz.

-Moteltze ekonomiko: honek ez du esan nahi enpresek dirurik galtzen dutenik, baizik eta espero baino gutxiago irabazten ari direla.

Orain, "krisian" gaudenez, langileok "solidarioak" izatea eta "gerriko estutzea" nahi dute, ez dezagula lan baldintza hobea

agorik edota soldata igoerarik eskatu eta, gainera, langabeziara bota nahi bagaituzte, ulerkorrak izan gaitezela.

Hala ere, azken hamabost urteotan enpresek pozarren eta lau haizeetara zabaldu dituzte sekulako irabaziak batere lotsarik gabe eta, bien bitartean, langileok ikusi behar izan dugu gure soldatek pisua galtzen zutela apurka, kontratuak gero eta miserablegoak zirela eta gure lanak gero eta ezezagorago eta prekarioago bihurtzen zirela.

Orain, "krisiaren kontrako" deitzen dituzten, baina benetan enpresarien mesederako diren neurri horiei amen esatea nahi dute. Hau da, diru irabaziak eurentzako gorde beti, baina galerak denon artean ordaintzea nahi dute...

Honekin batera, krisiaren mamua erabili nahi dute gu beldurtzeko, langileon kontura euren bizi maila lotsagabeari eusten jarraitzeko: lan eskubideak berriro murriztu (kaleratzeak merketu, flexibilitatea handitu, pentsioak gutxitu...), solda-

tak are gehiago gutxitu, aldi baterako langileak eta langile finkoak kalera bota, azpikontratazioa handitu...

Baina hau guztia ez da aldaezina. Langileok, pentsiodunak, langabezian daudenak, gazteak... honen kontra borrokatu gaitezke.

Eredu ekonomiko, sozial eta politikoa- ren aldaketa ezinbesteko eta premiazkoa da. Euskal Herrian denok ongi bizitzeko behar besteko aberastasuna dago. Baina horretarako, aberastasun hori modu justu batean banatu beharra dago, ekonomia pertsonen mesederako eta ez alderantziz planifikatu behar da, kalitateko zerbitzu publikoetan inbertitu behar da, beste batzuen artean hezkuntza, osasun, babes ofizial, etxebizitza eskubideak bermatu daitezten. Eta, jakina, hau guztia burutu ahal izateko Euskal Herrian eredu ekonomiko, sozial eta politikoa hori erabakitzeko eskubidearen jabe ere izatea ezinbestekoa dugu.

Harategietan euskara bultzatzeko kanpaina aurkeztu dute Buruntzaldeko udalek

Euskaraz saldu eta euskaraz erostea, Buruntzaldeko euskara batzordeek sektore desberdinetan bertako hizkuntza bultzatzeko martxan jarritako hainbat kanpainen helburu nagusia izan ohi da. Ikasturte berriari harategiekin ekin diote, "Eska ezazu haragia euskaraz" lemapean. Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo ia 60 saltokiek bat egin dute ekimenarekin. Usurbilen zazpik. Haietako batera joaten denak produktuak euskarazko izenekin ikusi, eta 50 euroko bi erosketa bono zozkatzeko antolatu den lehiaketan parte hartu ahal izango du. Abenduaren 17ra arte iraungo du kanpainak.

Fruta denda, ile-apaindegi edota arrandegien ostean, harategien txanda da orain. Salerosketak euskaraz egitera bultzatzeko kanpaina berri bat abiarazi dute Buruntzaldeko udaletako euskara batzordeek, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo harategietan. Guztira, 60 establezimendu inguruk bat egin dute kanpainarekin.

Ohiko produktuak, euskaraz

Saltoki parte hartzaileetako batera sartuta, begietara segituan jotzen duen paisaia linguistikoa euskaldunduta ageriko zaigu datozen asteotan. Harategietan aurkitu eta ohikotasunez erosi ahal ditza-kegun produktuen euskal izenak biltzen dituen kartelak esekiko dituzte. Guztira 80 bat banatuko dira Buruntzalde osoan. Baita txartelak ere. Euskarri horiek guztiek, Buruntzaldeko kanpainan murgildu diren saltokiak zeintzuk diren identifikatzen lagunduko digute.



ASTELEHENEAN EGIN ZEN KANPAINAREN AURKEZPENA. IRUDIAN, HERNANI ETA LASARTE-ORIAKO UDAL ORDEZKARIAK.

Kanpainaren aurkezpen saioan jakinarazi zuten, bailarako ia harategi guztiak, %90etik gorakoa baita parte hartzea erabaki dutenen portzentajea. Egitasmo honen haritik, euskara batzordeek presatutako material birziklagarri guztia euskaltegi eta ikastetxeetan ere banatuko dute.

LEHIAKETA MARTXAN

"Harategi bakoitzean,
50 euroko bi erosketa-bono
irabazteko aukera izango
dute bezeroek"

Sektore desberdinetan martxan jarri izan dituzten kanpainen barruan, hainbat lehiaketa ere antolatu dira. Harategiekin gauza bera egiteko asmoa

dute. Datorren astetik aurrera, Buruntzaldeko kanpainarekin bat egin duten saltokietara jo eta erosketa egitea-
gatik, lehiaketa batean parte hartzeko txartelak eskura daitezke. Horietan joko bat proposatzen da; irudietan ageri diren animalien zatiak, haien azpiko aldean ageri diren izenekin lotzea. Jokoa osatuta, norbere datu pertsonalak idatzi, betetako txartelak saltokira eraman eta bertan egongo den kaxan utzi behar dira. Abenduaren 17ra arte luzatuko da zozketa parte hartzeko epea.

Usurbilen, harategi hauetan

Irabazleen izen abizenak, abenduaren 19an jakinaraziko dira. Saltoki bakoitzeko bi bezerok 50 euroko erosketa-bono bana jasoko dute. Jokatu nahi duenak hurbil dadila Usurbilen dauden honako harategietako batera; Imanol Txapartegi, Txapartegi, Esnaola, Otar Goxo, DIA, Alkorta eta Arruti.

Otar-Goxo
Elkargak
Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

izagirre
943 36 50 95
609 06 81 11
izagirreletrizitatea@hotmail.com
Goiz argi etxea 37. KALEZAR

teilatua eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE
Obaba kalea 29 · ASTEASU
☎ 943 69 68 52 · 620 800 186

Lurreldebus txartelaren erabilpena gorantz doa

2008ko otsailean Lurreldebus txartela erabiltzeko deskontu sistema berria jarri zen martxan; ordutik nabarmen gora egin du erabiltzaileen kopuruak, Gipuzkoa osoko ia 100.000 herritar izateraino iritsiaz. Orain Lurreldebus txartelaren modalitate berriak martxan jartzen ari dira, ezaugarri bereziak betetzen dituzten herritarrei deskontu bereziak aplikatuta. Urrian, "Gazteak" txartela jarri zen martxan, 10 eta 25 urteko gazteenzat. Azaroan zehar beste txartel modalitate berri batzuk izango dira martxan: txartel soziala, adinekoentzako txartela eta ezinduentzako txartel berezia, besteak beste.

LURRELDE BUS

"Abendutik aurrera,
Lurreldebus txartela
Donostiako autobusetan
erabili ahal izango da"

Ohiko Lurreldebus txartelarekin ez bezala, Lurreldebus txartel berri hauek erabiltzeko beharrezkoa da Gipuzkoan enpadronatuta egotea. Honakoak dira txartel modalitate berriak:

GAZTEAK: 10 eta 25 urte bitarteko gazteentzat. Txartela errekaratzerakoan, sartutakoaren %20 eskuratuko da bonifikaziotan. Hau da, 10 euro sartu, eta %20ko bonifikazioarekin 12 euro errekaratuko zaie.



10-25 URTEKO GAZTEENTZAT TXARTEL BEREZIA JARRI DA MARTXAN.

TXARTEL SOZIALA: Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika sailetik oinarritzako errenta jasotzen dutenentzat. Txartela errekaratzerakoan sartutakoaren %100 bonifikatuko da. 10 euro sartu eta bonifikazioarekin 20 errekaratuko zaie.

ADINEKOAK: 65 urte baino gehiago dituztenentzako txartela. Txartelaren errekaratzearen %20a jasoko du bonifikaziotan.

EZINDUAK: %65a edo gehiagoko ezintasuna duten pertsonentzako txartela. Txartelaren errekaratzearen %20a jasoko du bonifikaziotan.

HAURRAK: 10 urte baino gutxiagoko haurrek debalde bidaiatuko dute. Hala ere, txartela eskuratu beharko dute bidaiak kontabilizatzeko eta bidaiaseguru izateko.

FAMILIA UGARIKO KIDEAK: Hiru seme-alaba edo gehiagoko famili batekoa izanez gero, maila orokorreko eta bereziko kideek %20 edo %50 deskontuak izango dituzte, hurrenez hurren.

Txartel berri horietakoren bat eskuratzeko, eskaera egin behar da. Hau da, nahiz eta ohiko Lurreldebus txartela izan, perfil horietako batekin bat egiten duten herritarrek txartel berria eskatu beharko dute. Txartela eskatzeko, eskaera orria, NA fotokopia eta argazki bat aurkeztu behar dira, eta Gipuzkoan erroldatuta zauden ziurtagiria. 4 euro ere ordaindu beharko dira txartela ateratzeko.

Gazteen txartela urrian hasi zen funtzionamenduan eta azaroan zehar gainetarako guztiak jarriko dira martxan.

Txartelarekin zein autobus erabili daiteke?

Garaiar autobus urdina: Andoain, Urnieta, Hernani, Donostia.

TSST bus berdea: Donostia, Lasarte, Zubietta, Andoain, Asteasu, Tolosa.

Areizaga autobus gorria: Hernani, Donostia, Pasai San Pedro, Errearteria.

Pesa: Donostia, Bilbo, Gasteiz, Goierri, Tolosaldea, Urola Garaia, Debagoiena eta Deba Behea.

Hernani barruko autobusa.

EuskoTren: Donostia eta

Gipuzkoako kostaldea, Bizkaia.

kostaldea, Urola, Debabarrena.

Goierrialdea: Goierriko herriak eta Zumarragako ospitalea.

La Guipuzcoana: Donostia, Urola Erdia, Urola Kosta eta Tolosa.

Herribus: Donostia, Pasai Donibane, Errearteria eta Oizartunekin lotzen ditu.

Tolosalde Bus: Tolosaldeko eskualdeak eta Ordizia.

Interbus: Donostia, Pasaia, Errearteria, Irun eta Hondarribiarekin lotzen ditu, baita aireportua ere.



Usurbilgo atez ateko bilketa, BECen aztergai

Aurreko aste osoan zehar Barakaldoko Bilbao Exhibition Center-en (BEC) egiten aritu diren "Iraunkortasuna GeO2" azokan Xabier Mikel Errekondo alkateak parte hartu du. Ostegunean, Rezikleta kooperatibak gonbidatuta, teknikarientzat antolatutako iraunkortasunaren tailerlean izan zen, eta bertan udal teknikarien aurrean Usurbilen egingo den atez ateko bilketaren berri eman zuen.

Bilketa honen nondik norakoak azaldu zituen, proiektuaren zergatia, erronkak eta asteotan egiten ari den

parte hartze prozesuaren berri ere eman zuen.

BESTE HERRIETAN, JAKINMINEZ

"Jardunaldietan zeuden udal teknikariek, herri asko Usurbili begira daudela helarazi zioten alkateari"

Galderen txandan, udal teknikariek zorionak eman zizkioten alkateari eta herri asko Usurbili begira daudela helarazi zioten.



BARAKALDON EGIN DIREN JARDUNALDIETAN IZAN DA XABIER MIKEL ERREKONDO ALKATEA.

Ogia erosi eta Arzaken afaldu

San Markosen kanpainak jarraipena izango du abenduan

Gogoan duzue "Zurekin egunero" kanpaina? San Markos mankomunitateak urriaren lehen igandean martxan jarri zuena? Bai, ogia erosteko poltsa banatu zuten doan. Eta egunero poltsa erabiltzen zutenek Arzaken birentzat afaria irabazteko zozketan parte hartzeko aukera zuten. Tira, aurreko astean egin zen lehen zozketa eta sariak Oiartzun aldeira joan dira. Abenduaren 4an egingo da bigarren zozketa. Beraz, parte hartzen jarraitu, oraindik bada beste aukerarik.

Lourdes Artola eta Garmendia okindegia, horiek izan dira lehen sarituak. Lourdesek ogia erosten zuen bakoitzean, San Markosek oparitutako poltsa erabiltzen zuen. Horri esker, zozketan parte hartzeko aukera izan du eta bera izan da lehen saritua. Bera eta ogia erosten duen saltokia ere, Garmendia okindegia. San Markosek, era honetan, bezeroek eta saltzaileek egin duten ahalegina saritu nahi baitute.

Donostiako Arzak jatetxean bi lagunentzako afaria irabazi dute bi sarituek. Saria erakargarria bada ere, ez dezagun

ahaztu helburu nagusia plastikozko poltsen kontsumoa murriztea dela, eta, horretarako, San Markosek urria hasieran oparitu zuen poltsa eraman behar dugula ogia erosten dugun bakoitzean.

San Markos mankomunitatea 10 udalerririk osatzen dute, tartean da Usurbilgoa. Herri denek hartu dute parte zozketan. Azaroko zozketan ez da posible izan, baina ea abendukoan gerturatzeko den saria.

Abenduaren 4an, bigarren zozketa

Kanpaina aurrera doa, eta azaro osoan bigarren zozketan parte hartzeko aukera dago. Bigarren zozketa hori aurtengo abenduaren 4an egingo da, notarioaren aurrean hori ere. Horretarako, txartel berriak banatu dira kanpainen parte hartzen duten establezimenduetan.

Afaria irabazteko, nola parte hartu dezaket?

1. Ogia erostera joaterakoan, San Markos mankomunitateak oparitutako oihalezko poltsa eraman.

2. Ogia erosterakoan, txartela jasoko



IRUDIAN, SAN MARKOS-EKO LEHENDAKARIA ETA SARIAREN IRABAZLEA.

duzu. Zure datuekin bete.

3. Dendako postontzira bota txartela.

4. Zozketa bi egingo dira: Lehena, azaroaren 4an egin zen. Bigarrena, abenduaren 4an.

Nicola Foroni, atez ateko partehartze prozesuko arduraduna

“Partehartzea benetan masiboa izan da”

Amaitu berri dira, atez ateko hondakinen bilketa sistema berria herritarrekin batera diseinatzeko, Udalak zonaldeka eta sektoreka deitutako bi bilera errondak. Ekimena arrakastatsua izan dela aipatzen du Nicola Foronik, partehartze prozesuko arduradunak. Herritarrak zoriondu nahi ditu, erakutsitako jarrera eraikitzailegatik. Alor hau ezaguna zaio Foroniri, besteak beste, bere jaioterrian martxan baitago atez ateko bilketa sistema.

NOAUA! Partehartze prozesuko arduraduna zara. Zeure lana zertan oinarritzen da?

Nicola Foroni. Usurbilgo Udala hondakinen bilketa sistemako aldaketa prozesua martxan jartzen ari da. Prozesu horren abiapuntua, herritarrekin batera egin nahi da. Nirekin harremanetan jarri dira, sistema berria aplikatzen laguntzeko, jendearekin batera eraikitzeko. Sistemak herritarren logikari erantzun diezaion. Aste hauetan herritarrekin lanean ari gara, haiek esan dezaten zer nolako sistema izatea nahi duten.

N. Egindako bilera errondekin zer inpresio jaso duzu?

N. F. Usurbilgo herritarrak zoriondu nahi nituzke, benetan itzelekoa izan baita partehartzea. Herritar asko egon da, eta batez ere, jende oso baikorra. Herritarrak jarrera eraikitzailea izan dute, eztabaida eta elkarrizketarako prest agertu dira. Jendea aurkeztutakoa onartu edota aldaketak proposatzen joan da; bilketa egunak aldatu eta ordutegiak eztabaidatzeko. Oso baikorra iruditu zait. Ia 600 pertsonen hitz egiten ari gara, gutxi gorabehera. Askoda hori, beste prozesu partehartzaileekin alderatuta. Sistema berria nola geratuko den zehatz-mehatz ezagutu eta bere iritzia emateko interesa dute-



NICOLA FORONI, AZAROAREN 3AN SUTEGIN EGIN ZEN BILERA AURRETIK.

la nabari da. Ni oso pozik nago talde guztiekin. Talde batzuk txikiagoak izan dira, besteak handiagoak, baina denetan egon da parte hartzea.

NICOLA FORONI

“Herritarrek jarrera eraikitzailea erakutsi dute, eztabaida eta elkarrizketarako prest agertu dira”

N. Usurbilgoaren aurretik, beste esperientzia batzuk bizi izan dituzu. Zer konparazio egin ditzakezu?

N. F. Partehartze mailan, nik bizi izan ditudan esperientziak normalki ez dira hain masiboak izan. Oro har, jende gutxiagorekin ekiten zaio partehartze prozesuari, gero progresiboki igotzen doa, batzuetan mantentzen da eta beste batzuetan jaitzi. Usurbilgoaren kasuan, partehartzea benetan masiboa izan da. Beste esperientziekin alderatuta, herritarrak gaia-

ren gainean daude. Beraz, oso ondo. Beste esperientzietan bezala, ekarpenak egiten aritu dira herritarrak. Batzuetan entzunez partehartzen da, baina partehartzea aktiboa izan dela nabaritu da. Kopuruaren arabera, kasu batzuetan lan taldeak osatu ahal izan ditugu eta horietan, gaia askoz gehiago sakontzea lortu da. Bestetan, maila globalagoan geratu gara, herritar kopuruagatik. Sutegi bera txiki geratu da bitan; plenarioan zein Kaxkoari eskaintako saioetan, guztiz bete baita. Beste esperientzietan bezala, prozesua berea egiten lortzen ari da jendea. Bi bileratan egotea ez da nahikoa noski, baina oso itxura ona du. Usurbilgo jendea gogo handiz dagoela iruditzen zait.

N. Antzeko esperientziak martxan jarri eta funtzionatu dute. Beraz, posible da?

N. F. Funtzionatzen duela ez dago inolako zalantzarik. Prozesu partehartzaileek funtzionatzen dute, baita atez ateko bilketa sistemak ere. Atez ateko hamarnaka esperientzia martxan dira

jada. Denek funtzionatzen dute, ontzietan egin izan den bilketa baino emaitza hobea izan du leku horietan guztietan. Batzuk besteak baino arrakastatsuagoak izan dira, baina gaikako bilketa portzentajearen igoera eta erreusaren murrizketa askoz altuagoak izan dira. Leku batzuetan, %80ko birziklatze maila gainditzea erraz lortu da. Egun, hemen %20 ingurukoa soilik izanik, bi, hiru eta lau aldiz gehiago ere birzikla daiteke beraz.

NICOLA FORONI

“Jendeak argi du ezin dugula mundua kutsatzen jarraitu”

N. Beste zer esperientzia ezagutzen dituzu?

N. F. Ni Italiatik nator. Beraz, atez ateko bilketa bertatik ezagutzen dut. Nire familiaren herrian atez ate biltzen dira hondakinak. Beste hainbat esperientzia ere badira Italian bertan, eta Europa iparraldean. Halako esperientziak jada martxan dituzten hiri eta herrien zerrenda luzea da, eta funtzionatzen dute. European erraustegien etapa bat egon zen, baina gerora irtenbide horiek alboratu egin dira.

Gaur egun, argi dago konponbidea ez dela erretzea, hondakin kantitatea murriztu eta gehiago birziklatzea baikik. Askoz ekologikoagoa da. Euskal Herrian halako esperientziarik ez dagoenez, hemengoak nobedade gisa ikusten ari da. Baina European jada egin ari dira.

N. Egungo sistema motz geratu da?

N. F. Ontzien sistemak guztia erraz-

ten digu. Atez ateko bilketa sistema martxan jarrita aldiz, gauzak ondo egiteko posibilitate gehiago ditu jendeak. Alde horretatik, jende askok partehartu eta gutxiago kutsatu nahi du. Haien zat egokiagoa den sistema bat martxan jarrita, egiten dute. Ez dago ohitura handia, baina jendeak borondatea du. Behin ohituta, egin egiten dute. Arrakastaren gakoa hor dago. Modu horretan egin nahi duenak, laguntzen du hala egitea.

N. Herritarrek dute giltza.

N. F. Noski. Jendartean dago giltzaria. Beti dago biltzen ez duen jendea, interesatzen ez zaiona. Baina askok beren aldetik jartzen dute. Jendeak argi du ezin dugula mundua kutsatzen jarraitu. Usurbilek bakarrik ez du aldatuko egoera, baina gutako bakoitzak pertsonetikiko dugun errespetua bezala, ingurumena ere errespetatu dezagun. Zentzu horretan, jende nahiko sentibilizatu dagoela uste dut. Denetarik dago noski. Batzuek mekanismoagatik gehiago egingo dute, alternatibarik ez delako egongo, baina gehiengoak zentzuzkoena izateagatik egingo duela uste dut.

N. Partehartze prozesuaren datoen asteotako agenda nolakoa izango da?

N. F. Bileren bigarren errondako helburu nagusia, zonaldez zonalde sistema zehaztea zen. Behin definituta, behin betirako proposamen bat osatutako da. Jarraipena egiteko lan talde bat sortzeko asmoa dago, herritarrekin. Haiekin lanean, elementu desberdinak analizatzen joango dira. Emaitzak herritarrei aurkeztuko zaizkien unea ere ailegatuko da. Informazio kanpaina bat egongo da, herritarrek ikasten joan daitezen eta zalantzak argitzeko.

“Herritarrek zoriondu nahi ditut”

Herritarrekin egin diren bileren errodek izandako parte hartze mailarekin pozik dago, alor honetako arduradun Nicola Foroni. Herritarrek zoriondu nahi ditu eta bide beretik jarraitzeko eskatu. “Jendea ez dadila moztu, parte hartzen jarrai dezala. Zalantzak, arazoak planteatu dituzte, edozein iruzkin egin dezatela”, adierazi du.

Hori baita datorren urte hasieran martxan jarri nahi den sistema berriaren esentzia. “Denon artean zerbait hobea eta egokiagoa eraikitzea”, gaineratu du.

Europa mailan, antzeko hainbat esperientzia martxan jarriak dituzte, geure ingurutik gertuen Herrialde Katalanetan, arrakastatsutat defini daitezkeen emaitzekin gainera. Euskal Herrian aldiz, Usurbil izango da hondakinen bilketa eta tratamendu lanetan, egungo sistema aldatuko duen lehen herria. Ezaugarri azpimarragarria Foroniren esanetan. “Usurbil erreferentziatzeko herrian bihurtuko da hondakinen tratamenduan, eta beste jende batek ikasi ahal izango du”, adierazi du.

Informazio gehiago non?

Gogoratu, Udalak zabalik du hondakinen gaiari eskainitako web orria: www.usurbil.net/atezate. Sutegiko erakusketa gelan informazio bulegoa kokatzen da. Eta doako informazio telefonoa ere badago: 900 776 776.

J.ORBEGOZO
ITURGINTZA • GASA • BEROKUNTZA
BIZKARRA 1, 1.EBK 943372937 • 659602789

Xukin Andoni Errazkin
igeltseritza orokorra
Barne eta kanpoko lanak
663 08 76 71 • USURBIL

Atez ateko sistemari buruzko zalantza ohikoenak

Martxan jarri nahi den hondakinen bilketa sistema berriak jakinmin handia eta zalantza bat baino gehiago eragin ditu herritarren artean. Partehartze prozesua abian jarri eta egin diren bilera errondatarako joandakoek hainbat zalantza eta galdera planteatu ahal izan dituzte. Hona hemen zalantza horietako batzuk eta atez ateko sistemaren sustatzaileek emandako erantzunak.

Hizlari lanetan aritu diren udal ordezkari edota teknikariak guztiak erantzuten saiatu dira. Udalak gai honi buruz zabaldu duen atari berrian ere, maiz errepikatu ohi diren zalantzak argitzen dira; www.usurbil.net/atezate web orrialdean hain zuzen. Hona hemen, bigarren bilera erronda hasi



HERRIALDE KATALANETAN EGITEN DA ATEZ ATEKO BILKETA, HAINBAT HERRITAN.

berritan herritarrek agertutako zenbait galdera, eta horri lotuta, orain artean, eragileek eman izan duten informazioa. Kasu gehienetan behin behineko

datuak, herritar eta erakundeen elkarlana bultzatu nahi denez, hondakinen bilketa sistema berria ez baitago guztiz diseinatua.

Finkatutako ordutegian zaborra utzi ezin duenak zer egin behar du?

Partehartze prozesua abiatu zenean, Udaletik bilketa zerbitzua gauez edo egunez egin zitekeela planteatu zen. Lehen bilera errondan jasotako herritarren ekarpenen ostean, egunez egitea hobesten da momentuz.

Egunean eguneko hondakin zati bakoitza uzteko ordutegia, goizeko 6:30-8:30 artean finkatzea aurreikus-

ten da. Denbora tarte hori igarota, bilketa lanek bost bat ordutik gora iraungo dutela kalkulatu dute. Gogoan izan, lan edo bestelako arrazoiren batengatik tarte horretan hondakin zatia etxe atarira ateratzea ezinezkoa zaionari, Atallun, Zubietan eta Aginagan zabalduko diren larrialdi guneak deiturikoetara jo dezakete hondakin zati desberdinak uztera, ondo datorkien orduan.

Zaborra larrialdi guneetara eramateagatik ordaindu beharko da?

Atallun, Zubietan eta Aginagan zabalduko diren larrialdi guneetako batera sartzeko, txartel bat banatuko da erabiltzaile bakoitzeko. Erabiltzaileek txartelak berak balio duena soilik ordaindu beharko dutela jakinarazi zuten udal ordezkariak.

Landa eremuko herritarrek non utzi behar dute zaborra?

Autokonpostatzea bultzatu nahi dute landa eremuan. Norberak etxean sortzen duen organikoa, aberentzat baliatzea bultzatu nahi da. Bestela, azaroaren 3ko plenerioan aurreratu zenez, Udalak autokonpostagailuak banatzeko asmoa du. Eta konpostajeari buruz jakin beharrekoa argi izateko, ikastaro irekia ere antolatzekotan dira.

Organikoa ez den gainerako hondakin zatiak, landa eremuan atez ate ez lirarteke jasoko.

Bilera errondan aipatu zenez, landa eremuko herritarrek Kaxkora jaisteko duten ohitura dela eta, gaika sailkatutako hondakin zatiak uzteko zabalduko diren gertuen gelditzen zaien hiru larrialdi guneetako batera jo beharko dute; lehen aipatu bezala,

Atallu, Aginaga edo Zubietara. Landa eremukoentzat larrialdi gune horiek, egunerokotasunean hondakin zati desberdinak uzteko ohiko tokietan bihurtuko lirarteke.

Gune itxiak, edonork sartu ezin go lukeen lekuak izanik, toki hauek erabiltzaile bakoitzak bertan sartzeko txartel bat eskuratu ahal izango du.

Zergatik kendu gaur egungo edukiontziak?

Askotan aipatu izan dutenez, ahalik eta hondakin gehien behar bezala birziklatu ahal izateko, ezinbestekoa da aldeztu aurretik bilketa eraginkorra izatea. Eta horretarako, lehenago hondakin zati bakoitza ondo, nahastu gabe gaika bereizi beharra dago.

Egungo ontzien sistemak arrisku bat du partehartze prozesuari lotuta antolatutako bileratan aipatzen zenez; zaborra gune horietan behar bezala birziklatu gabe botatzea. Gai desberdinak nahastuta, alegia.

“Atez atekoak emaitza hobek ematen ditu”

Horregatik diotenez, “atez atekoak ontzien sistemak baino emaitza hobek ematen ditu”. Herritarrak



GAIKAKO BILKETA ONDO EGITEKO, BEHARREZKOA DA HONDAKIN ZATIAK ELKARREN ARTEAN EZ NAHASTEA.

hondakin zati desberdinak gaika eta ondo bereizi beharko dituelako, bildu eta tratatzera eramanez aurretik.

Zer gertatuko da egungo sistemarekin jarraitu nahi duten herritarrekin?

Sistema berria martxan jarritzen den egunetik aurrera, halako esperientziak abiarazi dituzten beste hainbat udalerrietan bezala, gaur egungo hondakinak jasotzeko ontziak desagertuko dira. Dena den, atez atekora egokitzen ez den herritarrari, sistema berrira ohituzeko zer egin behar duen azalduko litzaioke.

Oraindik erabakitzeke dagoen arren, agian beira biltzen duena mantenduko da. Baina aipatu bezala, gainerako ontziak kenduko dituzte. Argi geratzen da beraz, bilera errondan aipatu izan den bezala, “sistema berrian parte hartzeko prest ez dagoenak, ez du beste alternatibarik izango”.

Hala, atez atekora egokitzen ez den herritarrari, sistema berrira ohituzeko zer egin behar duen azalduko litzaioke. Azkenean, eragileek aipatzen dutenez, sistema berrian parte hartu nahi duenari modua erraztu nahi zaio.

Gogorarazten zutenek, zabor zatiak nahasteak, egungo sistemak alegia, ingurumen gastu eta kostu ekonomiko oso altua du. Eta zer esanik ez osasunean dakartzen eraginei dagokienean. Bere bizilekuan duela bost urtetik martxan den atez ateko esperientziaren inguruan, San Markos Mankomunitateko teknikari Jordi Colomerrek zioenez, “oso eroso da. Bizi naizen lekutik halako sistema ez duten herriren batera joandakoan faltan sumatzen dut”.



Ontziak ordu askoz egongo dira kalean?

Egunez egun etxe atarrietan hondakin zati bat utzi beharko da, aldeztu aurretik finkatutako ordutegian; momentuz, goizean goiz. Denbora tarte hori igaro ostean hasiko litzateke bilketa zerbitzua.

5 ordu, gehienez

Kalkulatzen dutenez, bost bat ordu iraun ditzake. Azken bilera errondan, herritar batek bere kezka agertu zuen, hondakinak kalean denbora gehiegi egon eta espaloietan eragotziko dutelakoan. Erantzun zitzaionez, “atari bakoitzaren kanpo aldearen arabera izango da”. Halakorik ez gertatzen ahaleginduko direla aipatu zen.

Pilak nola bildu?

Egun dauden ontzi hori txikiengan jaso ohi dira. Baina bilera errondan aipatu denek, “pilak saltzen dituzten dendak biltzea bultzatu nahi da”. Beraz gai hau erosten den leku berean uztea sustatu nahi da, gero birziklatzera eramateko.



Joxerra Unanueren artelanen erakusketarekin hasiko da

NOAUA!k antolatu duen kulturaldia

Bere lanetik kanpo duen zale-
tasuna izan arren, batzuetan
lo egitea ere eragotzen dio.
Eta lanean dabilela, askotan buruari
buelbaka zer egin... Modu horretan,
jada mila artelanetik gora egin ditu
Joxerra Unanue eskulturgile eta mar-
golariak. NOAUA!k datozen asteeta-
tarako antolatutako Kulturaldiaren
barne, Intxaurrendokoak erakusketa
zabalduko du Udalak Barrenkalean
duen lokalean.

NOAUA! Usurbilgo erakusketan
pintura eta eskultura uztartuko dituzu.
Lehentasuna bietako batek izango du?

Joxerra Unanue. Bai, pinturan egin-
dako lan gehiago ditut, baina taila lane-
tan hasi nintzen. Lehenbizi egurrean
tailak egiten eta harriarekin ere ibilita-
koa naiz. Orion tailer bat zegoen, ber-
tan egon nintzen eskulturgile batekin.
Ez dakit nondik atera zitzaidan sena.

JOSE RAMON UNANUE

“25 urte daramatzat
margotzen. Hasieran
paisaiak. Gero abstraktuetan
murgildu nintzen”

N. Lehen eskultur lana gogoan al
duzu?

J. U. Animalia forma zuen, forma luze
samar bat. 15-16 urterekin Kutxak
antolatzen duen lehiaketa batera aur-
keztu nintzen. Han bigarren saria esku-
ratu nuen.

N. Betidaniko zaletasuna izan da?

J. U. Txikitik ez nuen kontuan iza-
ten, baina gogoan dut beti arkatx eta
margoekin ibiltzen nintzela. Eskolara
ere, pintura klaseak genituen egunetan
oso gustura joaten nintzen.

N. Eskulturarekin hasi, baina gero



OSTEGUNETIK IKUSGAI DIRA BERE LANAK BARRENKALEKO UDAL LOKALEAN.

margo lanetara jauzi egin zenuen?

J. U. Erakusketak ikusten hasi nin-
tzen. Lagun baten bidez, Donostian
zegoen elkarte artistiko bateko kide egin
nintzen. Beste margolari batzuekin ere
mugitu naiz. Paisaiak lan abstraktuekin
tartekatzen ditut.

N. Abstraktua nagusi zeure lanetan?

J. U. Margotzen 25 bat urte darama-
tzat. Lehen 6-7 urteetan paisaiak, erre-
tratuak... egiten nituen. Baina gero abs-
traktuetan murgildu nintzen.

N. Zer ikusiko dugu erakusketan?

J. U. Margoak nahiko tamaina handi-
koak dira, teknika desberdinez eginiko-
ak; batzuk margo esmalteekin, beste
batzuk oleoz, collageak, metal imitazio-
ak... Denetarik probatzea gustukoa dut.
Lokalean ditudan obrak izango dira,
denetatik pixka bat erakusteko.

N. Zure lanek badute jaioterriarekin
lotura berezirik?

J. U. Hemen etxeak daude gehienbat,
inspiratzeko gauza gutxi dago. Baina
Nafarroako zelaiak gustukoak ditut.
Lurrak, marroixkak eta okre koloreekin
gustuko dut margotzea. Baita
Donostiako Kontxa hondartza ere,

margo oso komertziala da. Askotan egin
izan dut. Baita Hondarribia ere.
Hondartzetako islak...

N. Erakusketekin hara eta hona ibi-
lia zara?

J. U. Hasieran kultur etxeetan egin
nituen. Egian, Intxaurrendon, Loiolan
hor aukera gehiago daudelako. Gero,
galerietan, Musikarten, Kutxan,
Segovian, Asteasuko udaletxean, lokal
komertzial eta tabernetan...

Azaroaren 23ra arte,
Barrenkaleko
udal lokalean

Joxerra Unanueren erakusketa
ostegun honetan, azaroak 13,
zabalduko da Udalak Barrenkalean
duen lokalean. Inaugurazio ekitaldia
19:00etan izango da; aurkezpen saioa
luntxarekin.

Honako ordutegian zabalik izango
da hilaren 23ra arte: osteguna eta
ostirala 18:00etatik 20:00etara.
Larunbatetan: 12:00tatik 14:00etara
eta 18:00etatik 20:00etara. Igandean:
12:00etatik 14:00etara.

Patxi Azpirotzek "Gipuzkoan zehar"

liburuaren pasadizoak azalduko ditu hitzaldi batean

Gipuzkoan zehar ibilbide lau edo nahiko lauetan egiteko 161 ibilbide biltzen dira Patxi Jagoba Azpirotz usurbildarrak egindako bost liburuxken bilduman. NOAUA!k antolatutako kulturaldian bere lana aurkeztuko du. Eta berak osatutako ibilbideetako bat egiteko aukera izango da.

Paseatzea ingurune honetan erabat uztartua dagoen kirol modalitatea dugu. Hemendik aurrera, oinez ibiliz Gipuzkoako txoko desberdinak ezagutzeko lagungarri izango zaigu, Patxi Jagoba Azpirotzen "Gipuzkoan zehar paseo moduan egiteko 161 ibilbide lauak edo nahiko lauak". Bost liburuxkez osatutako bilduman usurbildarrak herrialde mailan egindako ibilbideen informazioa eskaintzen da, argazki, eta bidean aurki litezkeen gune interesgarrien datuekin hornitua.

Hitzaldia, azaroaren 19an Sutegin

Ibiltzea gustuko izan arren, moko-rra higatzean, zaletasuna errehabilitazioan bihurtu zen Patxiarentzat. Makuluak hartuta gertuko ibilbideekin ekin eta azkenean Gipuzkoa osora



PATXI AZPIROTZEK SUTEGIN ESKAINIKO DU HITZALDIA, AZAROAREN 19AN.

ailegatu zen.

NOAUA! Kultur Elkartek antolatutako Kulturaldian jendaurrean aurkeztuko du bere lana. Azaroaren 19an, 19:30etan Sutegin. Sarrera doan.

Eta azaroaren 23an, paseo bat Aiako Harrira

Aurkezpen hitzaldian bere ibilerak azalduko ditu. Egun batzuk berandua go, hilaren 23an, igandean, berak egindako zirkuituetako batera joateko paseo eguna antolatu du NOAUA!k. Eguraldi onarekin, Aiako Harriaren

azpitik, Aritxulegitik ekin, ubidea gurutzatu eta Erlaitz pareko trenbide zaharretara jaitea litzateke asmoa. Eguraldi txarra eginez gero, ibilbidea moldatu eta Arditurrira joatea.

Hamar kilometroko ibilaldia izango da eta Azpirotzek berak egingo ditu gidari lanak. Irteeran parte hartzeko doan eman daiteke izena NOAUA!ko egoitzan bertan, azaroaren 20a baino lehen. Irteera ordua goizeko 8:30etan finkatu da Bordatxo pareko errotondan. Itzulera 13:30ak alderako. Joan etorria berriz, autobusez egingo da.

Azaroaren 22an, Txerriki antzerki taldearen saioa

Bizilagun komunitate baten gorabeherekin datoz bueltan Txerriki antzerki taldekoak. Istorioa, ama bat bere seme-alabekin etxez aldatzen denean hasten da. Badakizue, etxe berria, bizimodu berria, eta baita bizilagun berriak ere. Ingurune ezezagunera ohitzea erraza ote? Erantzuna, "ETXE BERRI de luxe" 14 urtetik gorako antzezlanean aurkituko

dugu. Aktore ezagunekin gainera. Herrikoak, bertakoak, ezagunak.

NOAUA!k antolatutako ekitaldirako sarrerak egunean bertan eskuratu ahal izango dira 5 eurotan. Eta aldeztatik 4 eurotan Txirristran eta NOAUA!n.

Bazkideek 3 eurotan izango dute sarrera salgai, NOAUA!ko egoitzan. Hitzordua, azaroaren 22an larunbata, 20:00etan Sutegin.



"ETXE BERRI DE LUXE"

OBRA ANTZEZTUKO DUTE SUTEGIN.

Alejandro Tapiaren erakusketan izan ginen

Kaixo lagunok! Joan den urriaren 23an osteguna, txango ederra egin genuen. Udarregi ikastolatik Arratzainera abiatu ginen. Handik, Aginagara joateko. Primeran ibili ginen frontoian eta bazkaldu ondoren, Alejandro Tapiaren erakusketa ikusi genuen. Txokoaldetik barrena itzuli ginen ikastolara.

Bestetik, letra zopa hau prestatu digute Udarregi ikastolako ikasle hauek. Ea topatzen dituzuen Usurbilgo auzo denak, animo!



AGINAGAKO ELIZA ZAHARREAN BISITATU ZUTEN ALEJANDRO TAPIAREN ERAKUSKETA.

USURBILGO AUZOAK

M	A	L	T	Ñ	I	Ñ	Ñ	Ñ	Y	J	X	V	H	R
K	G	A	K	Ñ	E	N	B	B	E	O	Q	G	X	A
I	A	M	G	P	B	P	R	C	E	E	K	A	R	J
B	I	J	A	I	T	C	V	D	Ñ	V	Z	A	K	T
X	A	J	K	I	N	D	L	S	W	V	Z	P	X	G
G	D	P	V	P	X	A	A	Z	Z	E	N	I	Z	U
F	R	T	B	L	O	N	G	D	L	J	K	I	Z	Z
G	U	I	T	K	T	Ñ	A	A	A	I	Q	H	U	E
Q	Y	R	O	U	Y	C	K	J	E	Q	E	B	V	L
D	B	X	E	E	R	R	Z	R	Z	K	I	A	M	I
L	T	N	B	O	R	H	D	C	Z	E	D	T	Y	Z
M	E	S	N	B	V	I	Z	X	T	V	Ñ	Q	D	A
A	J	B	U	N	K	V	L	A	T	A	J	E	Q	L
M	F	S	L	D	Q	W	F	V	V	W	E	P	Y	D
G	V	G	U	A	M	T	F	Ñ	A	P	O	O	W	E

AGINAGA
ELIZALDE
KALEZAR
SANTUENEA
TXIKIERDI
TXOKOALDE
URDAIAGA
ZUBIETA

Amodiozko gutun

lehiaketa Santuenean

Lehiaketa honetan 15-25 urte bitarteko usurbildar gazteek parte har dezakete. Lan guztiak jatorrizkoak, argitaragabeak eta euskaraz idatziak izan beharko dute.

Santuenea Kultur Elkartearen lokalean aurkeztu beharko dira lanak abenduaren 12an, arratsaldeko 17:00etatik 19:00ak bitartean. Lanek gutun forma izan beharko dute eta DIN A-4 orritan eskuz zein ordenagailuz idatzita aurkeztu ahal izango dira.

Egilearen datuak (izen abizenak, adina, telefonoa eta helbidea) kartazal itxi batean sartuko dira, ondoren kartazal txiki hau eta gutuna kartazal handiago batean sartu eta aurkeztuko dira.

Irabazlearen izena abenduaren 20an jakingo da. Saria: 100 euro.

Gabonetako Postalen Lehen Lehiaketa martxan

Santuenea Kultur Elkartek Gabonetako Postalen Lehiaketa antolatu du. Usurbildar haur eta gazte txoek har dezakete parte. Gabonetako ohituren inguruan osatu beharko dira postalak eta folio erdiko tamainan marraztu beharko dira. Marrazteko

edozein paper mota edo teknika erabili daiteke.

Santuenea Kultur Elkartek duen lokalean aurkeztu beharko dira postalak abenduaren 12an, arratsaldeko 17:00etatik 19:00ak bitartean.

Lanak izenik gabeko eta itxitako

gutunazalean aurkeztuko dira, barruan beste gutunazal bat egongo da egilearen identifikazio datu hauekin: izen-abizenak, adina, helbidea eta telefonoa.

Kategori bakoitzeko irabazleari 30 euroko bono bat emango zaio liburu denda batean materiala eros dezan.

Jendetza Behobian

Beste marka bat hautsi zuen Behobia-Donostia lasterketak, izan ere, korrikalariak 13.000 baino gehiago izan baitziren (izena eman zutenek 16.000 izan bazi- ren ere). Ohi bezala, gehientsuenak lasterketa amaitzearekin konformatzen ziren. Beste behin ere, Txema Martinez izan zen nagusi. Madrildarrak 01:00:31 denboran osatu zuen 20 km-ko distantzia. Usurbildarren artean, Koldo Mante- rola Aizpurua (01:13:55) eta Idoia Ezeiza Iruretagoiena (01:24:08) izan ziren helmugara iritsi ziren lehenak.



AITOR JAUREGI ETA IBAN MARITXALAR. ARGAZKIAK: JOSU ARANBERRI.



ALEX UDABE, JOSEBA REZOLA ETA IGOR MAIZ, MIRAKRUZETIK JAISTEN. ARGAZKIAK: JOSU ARANBERRI.

Herritarren denborak Behobia-Donostia lasterketan

KOLDO MANTEROLA AIZPURUA 01:13:55
 IGOR MAIZ PAGOLA 01:16:13
 IÑAKI GERICA JUAN 01:16:37
 E. JAVIER RABANO RUBIO 01:19:20
 JON TAPIA LIZARRAGA 01:20:16
 JUANJO ESTEVEZ MARTIN 01:21:40
 JOSE MARI SEOANE MAYOZ 01:22:28
 XABIER UDABE PAGOLA 01:22:53
 IDOIA EZEIZA IRURETAGOIENA 01:24:08
 MIKEL ALKORTA ALUSTIZA 01:24:52
 IBAN MARITXALAR ELIZONDO 01:26:28
 ANDONI UDABE ASTIGARRAGA 01:26:47
 ALEX UDABE PAGOLA 01:26:58
 ALEX CASTANDER URRUTIA 01:27:13
 JUAN CARLOS PEREZ LIZARRALDE 01:28:37
 JOSEBA REZOLA EIZAGIRRE 01:28:53
 PATXI MARIN ISASA 01:29:07
 ROSA MARIA URIBE NAVARRO 01:29:15
 JABIER ZUBIRIA AYERZA 01:29:26

DANI ITURBE PALACIOS 01:29:41
 PATRICIA FERNANDEZ TRUJILLO 01:30:01
 ARANTXA EIZAGIRRE ZALDUA 01:30:50
 JUAN MARI AGOTE GOIARAN 01:31:27
 E. JAVIER RODRIGUEZ CUENCA 01:31:37
 JOSE LUIS ZURIARRAIN ZAPIRAIN 01:31:51
 PEDRO CACERES NAVAJAS 01:33:24
 BERDAITZ LARRARTE ZULOAGA 01:33:45
 JESUS CASTRO GONZALEZ 01:34:39
 ALFONSO LÓPEZ GARCÍA 01:34:51
 ARITZ MARTIN LIZASO 01:35:38
 AITOR JAUREGUI URDAMPILETA 01:36:04
 ANDONI LABAKA LIZARAZU 01:36:18
 IKER MUGURUZA PIKABEA 01:36:51
 IÑIGO LOPEZ LOS SANTOS 01:37:54
 JON ORTEGA AÑORGA 01:38:36
 ION PORTU IRASUEGUI 01:38:56
 LUCAS ARROSPIDE JAUREGUI 01:39:58
 JOXEMARI PORTU AZPIROZ 01:41:30

IÑAKI MAYOZ REKONDO 01:42:18
 ERRAMUN ERRO AIZPURUA 01:42:38
 PELLO ZUMETA BERAETXE 01:44:00
 TXUS IGLESIAS RIO 01:44:01
 IÑIGO TELLERIA ELOLA 01:45:32
 CARLOS PEREZ FRAISOLI 01:47:36
 XABIER ORBEGOZO MUJIKA 01:48:58
 IÑIGO ALKORTA ETXEBERRIA 01:49:04
 CESAR DE LA FUENTE GARCÍA 01:52:33
 TOMAS IMAZ IZAGIRRE 01:53:08
 KARMELE LICEAGA ALCANTARA 01:53:19
 MARIA CAPELLA BUISSAM 01:55:54
 AITOR OTAMENDI LIZARAZU 01:56:04
 LOREA ALDABALDETREKU AGIRRE 01:56:14
 AINHOA MANSO MURILLO 02:03:18
 JAVIER VARONA ARRATIBEL 02:58:33

www.behobia-sansebastian.com webgunean Usurbil, Aginaga eta Zubietan klikatuz lortu dugun zerrenda.

Bidaia eta mendi irteeren inguruko lehiaketa antolatu du Andatzak

Azken bost urte hauetan bidaia eta mendi ibilaldi interesgarriak egin al duzu? Seguru baietz. Eta gainera, argazkitan edota bideoan jasota izango duzu. Hala bada, Andatza Mendi Elkarteak antolatu duen lehiaketan parte hartzeko aukera duzu. Hiru lan aipagarrienak sarituko dituzte gainera, kirol materiala erosteko bonoen bitartez. Lanak aurkezteko epea azaroaren 26an amaituko da.

Bidaia eta Mendi Irteeren Argazki eta Bideo Lehiaketa antolatu du bigarren Andatza Mendizale Elkarteak. Hauxek dira lehiaketaren oinarriak:

1.- Lana diapositibetan edo modu digitalean aurkeztu beharko da (argazkiak edo bideoa). Azken bost urte hauetan gauzatu den bidaia edo mendi irteera baten ingurukoa izan beharko du. Lanaren kopia bat bidali beharko da, originala jabearen esku geratuko da.

2.- Iraupena: gehienez 30 minutu.

3.- Lana aurkezteko azken eguna eta lekua: azaroaren 26a asteazkena, arratsaldeko 19:00etan Usurbilgo Udal Liburutegian (Sutegi eraikina, Irazu kalea 14, 20170 Usurbil).

4.- Hiru sari izango dira: 300, 200 eta 100 euroko balioa duten hiruroko kirol materiala erosteko, Andatzak zehaztutako kirol denda batean.

5.- Lanak euskaraz aurkeztu beharko dira.

6.- Epaimahaia: Andatza Mendi Elkarteak. Baloratuko dira esperientzia eta kontakizunaren originaltasuna, hizkuntzaren egokitasuna eta aberastasuna, material grafikoaren kalitatea eta mapa eta bestelako osagarrien ekarpena.

7.- Andatzaren esku geratzen da aurkeztutako lanen kalitatearen arabera sariren bat banatu gabe uztea.

Aurkeztutako lanak, Mendi Astean ikusgai

Aurkeztutako lanak Andatza Mendi Elkarteak abenduaren 9tik 14ra antolatuko duen Mendi Astean erakutsiko dira jendaurrean. Aurkeztutako lan kopuruaren arabera erabakiko da jendaurrean erakutsiko direnen zenbatekoa.

Informazio gehiago helbide honen bitartez jasoko duzue:

andatzake@usurbil.com

Eguneko goardiako farmaziak

Azaroak 13, osteguna
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Azaroak 14, ostirala
Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte

Azaroak 15, larunbata
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte
Iturralde, Borda Berri 1, Usurbil*

Azaroak 16, igandea
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Azaroak 17, astelehena
Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

Azaroak 18, asteartea
Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

Azaroak 19, asteazkena
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

Azaroak 20, osteguna
De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

Azaroak 21, ostirala
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Azaroak 22, larunbata
Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte
Oa, Kontseju Zarra 11, Usurbil*

Azaroak 23, igandea
Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
*Correa Farmazia (22:00-09:00),
Perkaiztegi kalea, 8 Hernani
Telefono zenbakia: 943 33 60 22
Usurbilen, soilik eguerdira arte



ABENDUAREN 9TIK 14RA MENDI ASTEA ANTOLATUKO DU ANDATZA ELKARTEAK. BESTEAK BESTE, LEHIAKETAN IZAN DIREN LANAK ERAKUTSIKO DITUZTE SUTEGIN.

Pilota partidak

AZAROAK 15 LARUNBATA
Usurbilen, 11:00
Eskuz binaka kadeteak, 2. maila
USURBIL-GAZTELEKU
(Julen Uli-Iñaki Irazusta) (Andoain)

Paleta goma jubenilak, 2. maila
USURBIL 2 - ILUNPE
(Julen Gesalaga-Markel Galarraga)
(Azpeitia)

USURBIL 1 - ARETXABAETA 2
(Iban Arruti-Josu Ostolaza)

AZAROAK 15 LARUNBATA
Usurbilen, 16:00
Eskuz banaka infantilak
OJARPE 2 - USURBIL 2

ZUMAIA - USURBIL 3
(Josu Furundarena)

USURBIL 1 - OJARPE 3
(Iñigo Ibargoien)

OJARPE 5 - AZKOITIKO 2

Agenda !!

Azaroak 16 igandea

- Txotxongilo ikuskizuna, "Cyrano".
17:00etan Sutegin. Gipuzkoan estrai-
nekoz. Azaroaren 7tik aurrera, sarrerak
aldez aurretik kiroldegian salgai.

Azaroak 19 asteazkena

- "Gipuzkoan zehar" liburuaren aur-
kezpena Sutegin, 19:30ean. Hizlaria:
Patxi Jagoba Azpirotz Manterola.

Azaroak 20 osteguna

- Santa Zeziliren omenezko kalejira
18:00etan, eta musika saioa Sutegin
19:00etan.

Azaroak 29 larunbata

- Igeldoko Lezkarri Ganbara
Abesbatzaren saioa, 18:30ean
Usurbilgo Salbatore elizan.

KzGunea, ikastaroak

AZAROAK 18/19

Irudi digitalen tratamendua I, 16:00-18:00

AZAROAK 20/21

Irudi digitalen tratamendua II, 16:00-18:00

KzGunea azaroan: 16:00/20:00. 943 36 14 12

Igande honetan "Cyrano", txotxongilo ikuskizuna Sutegin

Gutxitan izan ohi da txo-
txongilo ikuskizun bat
ikusteko aukera.
Estreinaldi baten lekuko izatea ere
ez da ohikoa inguru hauetan. Baina
igande honetan, bi baldintzak
emango dira: Gorakada Teatroak
Cyranoren istorioa kontatuko digu
Sutegin eta Gipuzkoan eskainiko
duten lehen saioa izango da hauxe.
Sarrerak kiroldegian dira salgai
aldez aurretik.

"Cyrano" maitasun istorio bat da.
Ezinezko maitasun istorioa. Itsusi eta
sentibera, eder eta ergel... Istorio
poetikoa, askatasun aldarrian bilaka-
tu dena. Zinean maiz antzeztu dena.
Igande honetan, ordea, ez da
Gerard Depardieu aktorea Sutegin
taularatuko dena.



MAITASUN ISTORIO BATEAN
DINARRITZEN DA CYRANO IKUSKIZUNA.

Txotxongilo baten eskutik ezagu-
tuko dugu Cyranoren istorioa.

Saioa arratsaldeko 17:00etan hasi-
ko da. Eta egokia, 5 urtetik gorako
haurrentzat nola helduentzat.
Sarrerak aldez aurretik 2 eurotan jarri
dira salgai Oiardon. Takilan 3 euro-
tan jarriko dira salgai.

Santa Zeziliren omenezko ekitaldiak

Musikarien eguna Santa Zezili
Megunean ospatu ohi da, azaroa-
ren 22an. Zumarte Musika Eskolak,
ordea, bi egun aurreratu ditu ospakizu-
nak. Azaroaren 20an osteguna, kalejira
bat egingo dute Zumarteko partaideek.
Arratsaldeko 18:00etan abiatuko dira
eskolatik haizezko instrumentu taldea eta
trikitixa taldea. Kalejira hori Sutegira iri-
tsiko da 19:00etan. Ordu horretan,
Musika Eskolako talde ezberdinak kon-
zertua eskainiko dute Sutegiko eskenato-
kian bertan.



EUSKAL HERRIKO MUSIKA ESKOLEN ELKARTEKO KIDEEK AZAROAREN 20AN
OSPATUKO DUTE SANTA ZEZILI EGUNA, TARTEAN, ZUMARTE MUSIKA ESKOLAK.

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

LABE-GOXO

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. © 943 362 725

CLIMATA-T
klimatizazio orokorra

687 858 390
climata_t@yahoo.es

ETXEBIZITZA

- Kaxkoan pisu bat alokatzen dugu, garajea eta trasteroa dauka. Abala eskatuko da. Deitu 18:00tatik 21:00etara 649 261 704 telefono zenbakira.
- Usurbildar gazte bat alokairuan dagoen etxe baten bila, Usurbilen. Tf: 652 750 789.
- Etxe bat alokatu nahiko nuke ahal bada Usurbilen edo inguruan, bakarrik edo konpartitzeko. 620431108.
- Etxebizitza bat alokairuan hartu nahi nuke. Mesedez deitu: 697 807 403.
- Zubietan alokairuan pisu bat hartuko nuke urte osorako. 675709894
- Baserri bat hartuko genuke errentan bi lagunek. 656 703 814.
- Santuenea auzoan hirugarren pisua salgai, guztiz amueblatua, 50m ditu. Gela bakarrekoa, sukalde, sala eta komuna oso argia da. 161.000 euro. 675709914.
- Zubietan 75 metro karratuko etxebizitza salgai. 2 logela, sala, komun bat, trastero txiki bat eta sukalde handi bat. Kanpokaldera ematen du etxe osoak eta bizilagunentzako aparkalekua dauka. 195.000 euro. 690290981.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Pisu bat salgai Kaxkoan, 3 logela, igogailua, balkoi luzeak eta ganbara dituen. Dena berria eta amueblatua. 47.000.000 pta. 657 71 13 35.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukalde, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Usurbilen etxebizitza salgai. Sukaldea, jangela, egongela, bi logela eta komuna. Dena amueblatua eta egoera onean. Agentziarik ez. 600645629
- Etxebizitza salgai. 86m karratu erabilgarriak + 13m karratu balkoi(eguzkitsua), 3 logela, bainua, komuna, kalefazioa, trasteroa eta igogailua. 318.000 euro. Tf: 688670561.
- Apartamentu-duplex rustikoa salgai. Zubietan Elizaren ondoan. 220.000 euro. 678084020.
- Usurbilen alokairuan bizitzeko logela edo pisu baten bila nabil. Bakarrik edo konpartitua. 625706912.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Pisu bat edo etxe bat alokatu nahiko nuke. 650082049.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna, sukalde, egongela eta trasteroekin. 685731792.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Honda CBF-250c.c motorra daukat salgai. 3 urte ditu eta 5500Km, egoera oso onean dago eta gara-

jean egondakoa da. 657770131.

- 5 ateko Peugeot 306 diesela salgai. Egoera onean, prezio ona (800 euro negoziagarri). 652713312 (Merce).
- Atxegalden Aritxixo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. Interesatuak deitu 658716970 telefonora.
- Etxebeste kalean 44 m²-ko lokala alokatzen da. Interesatuak deitu: 943 36 12 19.
- Usurbilen alokairuan hartzeko garaje baten bila gabiltza. Furgoneta bat sartzeko modukoa izan behar du. 647299299.
- Volswagen California bat daukagu salgai. 92. urtekoa, 2400eko motorra, konpondu berria... 650004264 edo 943243379.
- Citroen Picasso Diesel salgai. 4 urte. 617 24 26 60 (Nere).
- Hiru ateko Honda Civic salgai. Beti garajeen egondakoa. 620625823.
- Citroen Saxo diesela daukat salgai. Matrikula SS-BC da. 656734413 (Marijo).
- BMW 650F motorra daukat salgai. Egoera onean eta garajeen egondakoa. 666988050.
- Galtzaraginan 14 metro karratuko garaje itxi bat daukat salgai. 617972350

LANPOSTUAK

Lan-eskaintzak

- Txiribogan sukaldaria behar da, ostegunetik igandera. 699 451 082 (Arantxa).
- Antxeta jatetxean kamarera behar da, astelehenetik ostiralera lan egiteko.
- Sukaldari bat behar da Xarma tabernan. Interesatuak deitu 943368771 telefonora.
- Astean bi egunetan etxeko lanak egin eta umea zaintzeko pertsona behar da. 627278907.
- Aginaga sagardotegian zerbitzari bat behar dugu aste-bukaeratan lan egiteko. 943 366 710.

Lan-eskaerak

- Mekanikari lanak egiteko edo baserriko lanak egiteko prest nago. 690261041
- Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo tabernari lanak egiteko ere prest nago. 608835033
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 608 406 984.
- Usurbilgo neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, portalak garbitzeko... Interesatuak deitu 21:00-23:00era edo bestela kontestagailuan mezua utzi, 943 36 44 69. Esperientziaduna.
- Neska euskaldun bat behar da Kinkildegan lan egi-

teko. 609099824 / 943214508.

- Neska bat eskaintzen da, Usurbilen arratsaldez umeak zaintzeko. Interesatuak deitu: 679062726 / 943575788
- Neska bat eskaintzen da, Usurbilen arratsaldez umeak zaintzeko. Interesatuak deitu: 661702708 / 943575788
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko goizeko 7:30etik goizeko 9:30/10:00ak arte. Umeak zaindu edota ikastolara eramateko, astelehenetik ostiralera. 647 742 893.
- Neska gazte esperientziaduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. 661 626 500 // 943 371 348.
- Fisika eta matematikako klase partikularrik emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Sukaldaria naiz, goizez egingo nuke lan, Usurbilen bizi naiz. Autoa dut. Esperientzia asko: 669243437
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 679742413.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da, esperientziaduna. 690 784 113.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 608 406 984.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Ostegun iluntzean, errealeko jertsea galdu nuen frontoian. Norbaitek bilatu badu, 686969112
- Arrue markako kotxe kapota bat salgai daukagu 250 eurotan. 6-8 hilabete arteko umeentzat egokia. 616586851.
- Yorkshire terrier arrazako txakur bat galdu zaigu. 609 653 440. Itzultzen duena saritua izango da.
- Etxebizitzaren erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173466.
- Bakarkako haur ohe bat salgai koltxoi eta guzti. Tamaina: 90 x 1,90. Oso gutxi erabilia eta polita. Interesdunek: 629 730 299.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberrieekin eta urtebeteko behorra. Tf: 626 220925
- Aritz egurrezko aulkiak salgai. 943 36 20 49.
- 2. eskuko trikitixa erosiko nuke. 656 76 52 13.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapore@euskalnet.net



Zorionak Amoni!
Urriaren 28an zure urtebetetze eguna izan zen. Etxeko guztien partetik muxu handi bat!



Zorionak Nahia!
Azaroaren 16an, 3 urte beteko dituzunez, muxu potolo bat etxeokoen partez.



Zorionak Arantxa!
Azaroaren 9an zure urtebetetze eguna izan zen. Muxu handi bat familia guztiaren partez.



Xixili egunean 3 urte bete dituzu.
Zorionak Poxpolintxo!!

Zorionak Aroa!

Azaroaren 10ean 6 urte bete zenituen. Muxu handi bat eta ondo pasa aita, ama eta Ioritzen partez.



HILDAKOAK

Antonio Fernandez Iglesias
74 urterekin hil zen, Usurbilen



HILDAKOAK

Antonio Arruti Santamaria
Azaroaren 9an hil zen 71 urterekin, Santuenea



JAIOTZAK

Kimetz Ramos Martin, urriak 23
Haritz Ugartemendia Esnaola, urriak 28

txirriStra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466
TABERNA

ALIPROX
Kale Nagusia 10
943 361 182
USURBIL

JOSETXO IKATZETA
Iturgintza
TEL: 943 36 20 26
687 95 12 25



Negu honetan, ahaztu hotza.

ESKAINZA
PAREGABEA

Naturgas energiarekin, gas naturalez gozatuko duzu etxean.

Orain, erosotasunik handienaz gozatzea inoiz baino errazagoa da. Izan ere, fabrikatzaileekin eta gas-instalatzaileekin lortutako akordioari esker, guk gas naturalerako instalazio osoa egingo dizugu, eta zuk orain arte sekula inork eskaini ez dizkizun baldintzak izango dituzu.

Egundoko prezioan:
3.300€
(BEZ kanpo).

+

KREDIGAS
finantziazio berezia,
instalazioa hileko kuota erosotan
finantzatzeko.

+

570€
ere emango dizugu

Promozio honek 08/12/31ra bitartean iraungo du.

Finantziazio berezi honen interes-tasa 2008rako %5,25ekoa izango da (Credigas). Gauko tarifa baduzu, edo 65 urtez gorakoa bazara, 570 € jasoko duzu; halakorik ez baduzu, 270 € jasoko duzu. Prezioa gutxi gorabeherakoa da, barneko instalazioa egiteko, kondentsazio-galdara (markaren arabera) eta 6 erradiadore (45 elementu) jartzeko. Promozio estandarren gaineko edozein aldaketa, aparteko aurrekontua izango du. Promozio honetaz baliatzeko, Naturgas Energia Comercializadora, SAUrekin hornikuntza alfo egin beharra dago.

902 123 456 Telefono Urdina
www.naturgasenergia.com



**naturgas
energia**

EDERTU ZAITEZ!



Eskaintza Solariuma 35€

Ioli Lizarraide

ileapaindegia • Estetika Zentroa Merche Casaresen eskutik

Zubiaurrenea, 5-B. ☎ 943 361 971



Jwar
ESTETIKA

- tatuaiak
- piercing
- fotodepilazioa
- mikropigmentazioa
- hortzetako kristalak

munaturre 2, Usurbil ☎ 943 571 680



Agate
ESTETIKA ZENTROA

- Depilazioa • Laser-depilazio
- Manikura • Aurpegiko Tratamendua
- Pedikura • Solariuma • Makilajia

Nagusi 51 • Lasarte-Oria 943 370 549



Intza
ileapaindegia

- ✓ Iile tratamenduak
- ✓ Laser Depilazio

eskeintza / ild. 0943363641

Eguedian irekia!!!

IV/ Nagusia 8 ☎ 943 363 641



Elexpe
ileapaindegia

Betileen tintaketa eta permanentea

Estetika • Tatuaiak

Zutikako eta Etzandako Solariuma

Muna Lurra 12. ☎ 943 370 462



mistoa

Depilazioa
Makilajea
Manikura

Zubiaurrenea 4, USURBIL • ☎ 943 361 951